

# 2012ko albisteen kronika

## Euskaltzaindiak Zuzendaritza berritu du

2012ko urriaren 18an, Bilbon, Akademiaren egoitzan egin zen bilkura berezian, datozen lau urtetarako Zuzendaritza berria aukeratu zuen Euskaltzaindiak. Hau da Akademiaren Zuzendaritza:

- Euskaltzainburua: Andres Urrutia
- Euskaltzainburuordea: Xarles Videgain
- Idazkaria: Xabier Kintana
- Diruzaina: Sagrario Aleman
- Iker sailburua: Adolfo Arejita
- Jagon sailburua: Jean-Baptiste Coyos

## Luis Villasanteren idazlanen digitalizazioa

Luis Villasanteren artxiboa eta hark idatzitako lanak sistematizatu eta digitalizatu ditu Euskaltzaindiak, Bizkaiko Foru Aldundiak berariaz emaniko diru-laguntza bereziari esker. Villasante euskaltzainburua izan zen 1970etik 1988ra. Bere lehen argitalpena 1944koa da, eta azkena 2000koa. Guztira, argitaratutako 929 idazlan katalogatu eta bildu dira, eta guztiak kontsulta daitezke Akademiaren webgunean. Gainera, bere artxibotik, eskuizkribuak, gutunak eta argazkiak ere digitalizatu dira.

Villasanteren idazlanak aurretik argitaratuak eta gaurtik aurrera Interneten lau multzo nagusitan daude banatuta: liburu osoak (41), liburu zatiak (106), artikuluak (769, gehienak euskaraz idatziak) eta edizio bereziak. Edizio berezi horiek ere liburu osoak dira, baina Villasanteren egiletza berezia da, testuak ez baitira berak sortutakoak, bildu, editatu edo prestatutakoak baizik (13 guztira).

Gaiei dagokienez, erlijio gaiak jorratu zituen gehienbat (381). Euskarari buruzkoak 298 lan dira (Euskaltzaindiaz, hizkuntzalaritzaz, normalizazioaz), eta literaturaz 180 lan sailkatu dira. Bestelako lanetan gai ugari jorratu zituen.

Idazlan guztiak PDF formatuan digitalizatuta eskaintzen dira.

Egitasmoa Euskaltzaindiak kudeatu du, eta Joan Mari Torrealdaik zuzentzen duen *Jakin* aldizkariaren taldeak garatu du. Aurkezpena irailaren 19an egin da, Euskaltzaindiaren egoitzan, eta parte hartu dute Joan Mari Torrealdaik, Josune Ariztondo Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatuak, Iñaki Beristain Arantzazuko Frantziskotarren Probintziako ordezkariak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak. Miriam Villasante Luis Villasanteren iloba ere bertan izan zen.

## **Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren IV. liburukiaren aurkezpena**

Irailaren 28an, Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren IV. liburukia aurkeztu zuen Euskaltzaindiak Iruñean. Aurreko hirurak bezala, Euskadiko Kutxaren babesarekin argitaratu du Akademiak. Liburu horretan kontzeptu ugari bildu eta landu dira, eremu biren inguruan: etxe-abereak eta etxea bera. Hala, liburukiaren lehen parte hainbat etxe-abereri eskainia dago eta bigarren parte, batez ere, etxearen esparruari dagokio.

Aurkezpena honako hauek egin zuten: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Xabier Egibar Euskadiko Kutxako Negozio Garapenaren Areako zuzendariak; Maximino Gómez Euskarabidearen zuzendari kudeatzaileak; eta

Adolfo Arejita EHHA-ren zuzendari akademikoak eta Xarles Videgain arduradun teknikoak.

Liburukiaren lehen partea, etxe-abereei eskainia dago: txerriak, hegaztiak, txakurrak, erleak. Txerriaren gaiak arlo zabala hartzen du, tradizio gizartean goren mailako elikagaia izan baita txerria. Etxeko hegaztiei dagokiena da bigarrena. Oilo-oilarren, handi-txikien izenak, parte biologikoak, prozesu biologikoak, ekoizpenak. Gainerako hegazti batzuk ere aipu dira: antzara, ahate, uso eta beste. Etxe-abere txikien artean, munta gutxiagoko batzuen ondoan (untxia), txakurrek eta katuek, eta baita ere erleek toki handia hartzen dute. Azkenik, abereetan ar-emeen izen generikoak biltzen dira.

Liburukiaren bigarren partea, batez ere, etxearen esparruari dagokio. Populatzemota diferenteak: herria, eliz inguruko etxe-multzoa, auzoa eta baserria bereizten dira, batetik. Etxe edo eraikuntza tipoak ere jaso dira, baita biztanleen jabetza-mailak, etxearen parte nagusiak, etxegintzako prozesuak, materialak, etxearen estalkiak, kalteak eta berritze-lanak edota egitura nagusiaren osagaiak ere. Etxearen barru-banaketa eta etxe barruko altzariak ere aipu dira. Eta azkenik, etxearen erdiguneari, sukaldeari atxikitako suaren gaineko prozesuak.

### ***Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak argitaratu da***

Urriaren 3an, *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* aurkeztu zen Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Lan hori euskara-euskara hiztegia da eta Euskaltzaindiak, Elkar argitaletxeak eta Elhuyar Fundazioak batera argitaratu zuten, elkarlanean.

Lanaren oinarria Euskaltzaindiak onartua duen *Hiztegi Batua* da, lehen itzulian argitaratutako hitzekin. Lan berriak, ordea, askoz informazio gehiago eskaintzen du: *Hiztegi Batuko* lehen 20.000 hitzak dauzka, beren definizio, kategoria gramatikal, espezialitate-, erregistro- eta euskalki-markekin, aditz-erregimenekin, eta benetako erabileratik jasotako adibideekin, hots, irakurleari euskal hitzak egoki erabiltzen lagunduko dioten informazioa dakar argitalpenak. Aurkezpenean honako hauek izan ziren: Andres Urrutia

euskaltzainburua; Olatz Osa, Elkar argitaletxeko zuzendaria; Itziar Nogeras, Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusia; Andoni Sagarna, Euskaltzaindikoko Iker sailburua; eta Ibon Sarasola, *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* egitasmoaren zuzendaria.

## Azkue Sariak

Maiatzaren 22an, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, Akademiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatzen dituzten Resurreccion Maria Azkue Literatura Sariak banatu ziren. Sariok Gorka Martinez BBK Fundazioko buruak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak eman zituzten.

Hauek izan ziren 2011ko saridunak:

- A maila, narrazioan: lehen saria: *Ez naiz zure printzesa*, Anne Lapeira; bigarren saria: *Maite, maite... ez bakarrik bakoitzak bere burua*, Maddi Petralanda; hirugarren saria: *Michelen misterioa*, Evangelina Descalzo. Bestalde, lan sarituez gain, ondoko lanak argitaratu ziren, epaimahai-koen gomendiaz: *Mesopotamiako mamua*, Julen Antxia; *Zein zaila den semea izatea*, Xabier Oianguren.
- A maila, olerkian: lehen saria: *Norbait joan da*, Amaia Rodriguez; bigarren saria: *Bizirik gabe bizi den pertsona*, Malen Barriola; hirugarren saria: *Gizon herrenaren olerkia*, Maite Larrarte.
- B maila, narrazioan lehen saria: *Ez dago musik!*, Maialen Akizu; bigarren saria: *Gauaren beharra*, Ainhoa Urien; hirugarren saria: *Ainarak bezala...*, Mikela Atxoarena.
- B maila, olerkian: lehen saria: *Idazten hasi da*, Maialen Akizu; bigarren saria: *Zer da denbora?*, Maialen Elortza; hirugarren saria: *Los Angeles, 2019*, Mikel Aranburu.

Urtero bezala, literatura eremuko pertsona adituek osatu zituzten epaimahaiak, betiere Euskaltzaindiak izendatuta. Edizio honetako epaimahai-koak hauek izan ziren:

- A mailan: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Antton Irusta.
- B mailan: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Mayi Iza.

## Erlea aldizkariaren 6. zenbakiaren aurkezpena

Euskaltzaindiak argitaratzen duen eta Bernardo Atxaga euskaltzainak zuzentzen duen *Erlea* aldizkariaren zenbaki berria aurkeztu zen azaroaren 19an, Donostian, Koldo Mitxelena Kulturunean. Zenbaki berriak, seigarrenak, bi gai jorratzen zituen, batez ere: autobiografia eta harria. Aurkezpenean, Andres Urrutia euskaltzainburua, Bernardo Atxaga egitasmoaren zuzendaria eta aldizkarian parte hartu zuten hainbat pertsona egon ziren.

## Mauleko Libürüaren Egüna, Sarako Idazleen Biltzarra, liburu azokak

Martxoaren 17an, I. Libürüaren Egüna egin zen Maulen. Hiri horretako Herriko Etxeak antolaturik, egun osoan zehar egon zen zabalik. Euskaltzaindiak ere saltokia jarri zuen, eta Zuberoarekin lotura duten 20 argitalpen erakutsi. Inaugurazio ekitaldi ofiziala hilaren 16an izan zen. Mauleko I. Libürüaren Egunaren sarrera hitzaldia Jean-Louis Davant idazle eta euskaltzainak egin zuen, «Eüskal literatüran paseiü bat libürü zonbaitekin» izeneko mintzaldiarekin.

Apirilean, Sarako Idazleen Biltzarrean parte hartu zuen Euskaltzaindiak, eta lau liburu aurkeztu: *Xiberoko Antzertia edo Pastoral*a, Junes Casenave-Harigilerena; Gratien Adema «Zaldubi»ren *Bertze prediku batzuk*, Henri Duhauk prestatua; *Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian*, Erramun Baxok eta Jean Baptiste Coyosena; eta Xarles Videgainek prestatutako *Eugène Goyheneche: Onomastique du Nord du Pays Basque*. Bestalde, Durangoko Liburu Azokan ere izan da, baita Bartzelonako Liber Azokan ere.

Maiatzaren 31tik ekainaren 10era, Bilboko Liburu Azokak iraun bitartean, Euskal Pizkundeari buruzko erakusketa bat ikusgai egon zen Bilbon. Erakusketa Liburu Azokaren ekimenez antolatu zen eta Euskaltzaindiak kolaboratu zuen, Akademiaren Azkue Bibliotekak maileguan utzi zuen materialarekin. Bibliotekak garai horretako euskal idazle edo kultur eragile

enblematiko batzuen idazlanak utzi zituen, nagusiki Aitzol, Lauaxeta, Lizardi eta Orixerenak. Arreta berezia jarri zitzaion *Euskaltzaleak* elkarteari, 1930eko hamarkadan euskara eta euskal kulturaren aldeko dinamika indartsua sortu zuelako, buru Aitzol zelarik eta Lizardi idazkari.

Urrian, hilaren 3tik 5era, Institut d'Estudis Catalans eta Consello da Cultura Galega erakundeekin batera, Bartzelonako Liber Azokan izan zen Euskaltzaindia. Hiru erakundeok erakustoki berean izan ziren, eta hortxe aurkeztu zituen Akademiak bere azken lan eta argitalpenak.

Eta abenduan, urtero bezala, 6tik 9ra bitartean, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan ere izan zen Euskaltzaindia. Bi saltoki izan zituen, eta bertan, besteren artean, 2012ko nobedadeak izan zituen salgai. Horien artean, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. *Adierak eta adibideak* eta *Erlea* aldizkariaren 6. zenbakia.

### «Euskarazko funtsen bilketa, tratamendua eta hedapena» jardunaldietan

Ekainaren 7an, Nafarroako Gobernuaren Euskarabideak antolatutik, «Euskarazko funtsen bilketa, tratamendua eta hedapena» izeneko jardunaldia egin zen Burlatan. Euskaltzaindiak egitasmo bi aurkeztu zituen: Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) eta Ahozko Tradizioko Hizkeren Corpusa (ATHC). Akademiaren ordezkariak hauek izan ziren: Adolfo Arejita bi egitasmoetako zuzendari akademikoa, eta Amaia Jauregizar eta Aritz Abaroa, EHHA eta ATHC egitasmoetako teknikariak, hurrenez hurren.

Uztailaren 4an, *Leioako leku-izenak* liburua aurkeztu zen Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Liburuan, azken hiru urteetan egin den Leioako toponimia ikerketa-lanaren emaitzak batu eta herritarren esku ipini zituzten Leioako Udalak eta Akademiak. Lanaren egileak Mikel Gorrotxategi, Iratxe Lasa eta Goizalde Ugarte dira. Azaroaren 15ean Leioan ere aurkeztu zuten.

## 2012ko Xalbador Eguna

Xalbador ez ezik, Joakin Berasategi ere izan zuen gogoan 2012ko Xalbador Egunak. Urriaren 27an eta 28an Urepelen egin zen festak, ohi bezala, musika, bertso edota herri kirolak eskaini zituen. Deiadarra elkarteak eta Euskaltzaindiak antolatzen dute Xalbador Eguna, eta urriaren 11n, Itxaro Bethart Deiadarra elkarteko kideak, eta Joxe Mari Iriondo ohorezko euskaltzainak, bi erakundeon izenean, aurkeztu zuten egitaraua, Donostian eta Baionan. Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundien eta Urepeleko Herriko Utxearen laguntza izan dute antolatzaileek.

## Duela 75 urteko bonbardaketak gogoan, 1937. Bizitzak eta bonbak liburua kalean

Gernika bonbardatu zutela 75 urte bete ziren 2012ko apirilaren 26an. Martxoaren 31n bete ziren 75 Durango bonbardatu zutenetik. Horren ostean Elgetako eta Eibarko bonbardaketak gertatu ziren, eta baita beste hainbat herritakoak ere. Gertaera lasgarri horiek gogoratzeko hainbat ekimen egin ziren herriotan. Testuinguru horretan kokatu zen 1937. *Bizitzak eta bonbak* liburua, BBK Fundazioak argitaratua, «Bizkaiko gaiak» bilduman. Liburuak Bernardo Atxaga, José Fernández de la Sota, Miguel Angel González San Martín eta Ignacio Martínez de Pisón idazleen lanak bildu ditu.

Gernika-Lumoko Udalak eta Euskaltzaindiak babestu zuten euskarazko edizioa, eta Xabier Kintana euskaltzainak Fernández de la Sota, González San Martín eta Martínez de Pisón egileen testuak euskaratu zituen. Apirilaren 25ean, bonbardaketaren urteurrenaren bezperan, Gernikan aurkeztu zuten Bernardo Atxaga eta Ignacio Martínez de Pisón idazleek, Jose Mari Gorroño alkateak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Liburuak honako lanak biltzen ditu: Ignacio Martínez de Pisónen *Hombres de paz (Bake-gizonak)*; José Fernández de la Sotaren *El sueño de los justos (Zuzenen loa)*; Bernardo Atxagaren *Ama Eibarren dago*; eta Miguel Angel

González San Martínen *De barcos y aviones* (Itsasontzi eta hegazkinei buruz) kontakizuna.

### **Zergatik panpox liburuaren irakurraldi jarraitua**

Ekainaren 14an, Bilbo Zaharra Forumak antolatutako Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox* liburuaren irakurraldi jarraitua egin zen, Bilboko Arriaga Antzokian, goizeko 8:00etatik iluntzeko 20:00etara. Hau izan zen Klasikoen Irakurraldia deituriko egitasmoa egiten zen bosgarren urtea. Hala, 2008an Axularren *Gero* irakurri zen, 2009an Mogelen *Peru Abarca*, 2010ean Jon Miranderen *Haur besoetako* eta iaz Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*.

Euskaltzaindiaren aldetik, kide batzuk parte hartu zuten. Goizeko 8:00etan, liburuaren lehenengo hitzak Arantxa Urretabizkaiak berak irakurri zituen, eta ondoren 400 inguru lagunek pasarte bana irakurri zuten, txandaka, horien artean Andres Urrutia, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia eta Pello Salaburu euskaltzainek. Egunean zehar, hainbat euskaltzain urgazle ere izan ziren irakurketan.

### **Euskara ikasteko dei zabala**

Irailaren 20an, euskaltegiek «Zatoz euskaltegira!» lemapean agerraldia egin zuten Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, euskal herritarrei euskara ikasteko deia luzatzeko xedearekin. Ekitaldian euskaltegietako ordezkariak izan ziren, eta eurekin batera erakundeetako, alderdi politikoetako eta sindikatu etako kideak; kirolariak; kultur arloko ordezkariak eta, oro har, hainbat gizarte eragile. Besteren artean, Mertxe Mugika, Juan Karlos Murillo, Patxi Agirregomezkorta, Lourdes Auzmendi, Miren Dobaran, Zigor Etxeburua, Laura Garrido, Marije Fullaondo, Vicente Reyes, Lorea Bilbao, Juanmari Larrarte, Iñaki Uribe, Koldo Tellitu, Paul Bilbao eta Amets Arzalluz izan ziren.

Guztion izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak hartu zuen hitza, eta euskara ikasteko arrazoi ugari daudela esan zuen. Hori bai, «behin ikasteko



bidaia eginez gero, bidaia hori aberasgarri eta suspergarri izan dugu. Gure izatea hobeto ezagutzen dugu, gure inguruaren izenak eta izanak egokiago barneratzen ditugu eta horretaz kanpo ere, gauza gara egunero gure sentimenduak euskaraz kanporatzeko, gure lana euskaraz egiteko, gure laguntaldean euskaraz aritzeko... hitz batez esateko, geureago eta aldi berean zabalago eta irekiagoak izateko. Ikasi eta erabili, erabiliz ikasi, erabiltzeko ikasi... Horretan ditugu bidegile eta bidaide euskaltegiak».

### **Bernardo Atxagaren *Obabakoak*, 2012-13 ikasturteko protagonista**

Bernardo Atxagaren *Obabakoak* eleberria izan zen protagonista, Bilbo Zaharra Forumak 2012-2013 ikasturterako antolatu zituen jardunaldietan. Jardunaldi horiek ikasturte osoan zehar burutu ziren, azarotik hasita.

Bernardo Atxagaren berbetan *Obabakoak* liburua oso loturik dago Bizkaiko hiriburuarekin. Izan ere, berak dioenez: «Bilbon bizi nintzen, hemengo apopilo-etxe batean. Etxe horretako ugazaba-andrea Zeanurikoa zen (...) halako batean magnetofoi bat erosi nuen eta, probatzearren edo, esan nion andre horri, alegia, zerbait kanta zezala (...) halako kanta arrunten bat edo ezagunen bat kantatuko zidala espero nuen; eta horra hor non andre hori hasi zen Obabatxue, Obabatxue sehaska-kanta kantatzen.»

Esan bezala, 2012ko azaroan hasi ziren ekitaldiak. Hala, «Paisaiaren adiera» izenburupean, hiru hitzaldi antolatu ziren: azaroaren 20an, Maialen Lujanbio eta Harkaitz Cano aritu ziren; azaroaren 21ean Anari eta Iñigo Aranbarri; eta azaroaren 22an, Bernardo Atxagari buruzko *Leku hutsak, hitz beteak* dokumentala aurkeztu zuten Joxe Angel Arbelaitz zuzendariak eta Juanfe Garcés editoreak.

Ekitaldi guztiak Bilbon egin ziren, Euskaltzaindiaren egoitzan. Izan ere, Euskaltzaindia da ekitaldien eta irakurraldi eten gabearen babesleetako bat, Bilbo Zaharra euskaltegiak eta Euskaltzaindiak lankidetza hitzarmena izenpetu baitzuten 2011ko irailaren 22an.